



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 8a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (16. or.).
- Foru Lege proiektua, hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzekoa. Osoko zuzenketak (17. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. S.M.ren ordez S.M.P. ageriko da beti.

Zioak: Proposatu den eite juridikoarekin bat.

2. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gobernuaren berezko eginkizunak dira.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Erabaki edo eginkizun hori hobe da Administrazioak berak jarraitzen badu betetzen.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua: 2. artikulua 1. a) letraren amaieran honako testu hau gehitzea proposatzen da:

“salbu eta Korporazioaren sozietatearen kapitalaren zati bat besterentzea edo eskualdatzea.”

Zioak: Erabaki edo eginkizun hori hobe da Administrazioak berak jarraitzen badu betetzen.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko da 2. artikuluko 2. c) letra: “Korporazioaren erantzukizun soziala eta Enpresa Korporazio Publikoaren partaidetza duten sozietateen beste edozein, hori guztia ezertan ukatu gabe...”

Zioak: Koherenteagoa da, gainontzeko artikuluetan ere gertatzen baita.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2.1 artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

2.1. artikulua. Oro har:

“d) Nafarroako Gobernuak, erabakiaren bidez, ezartzen dizkion guztiak, sozietatea sortuz bete nahi diren helburuen barruan. Erabaki hori Nafarroako Parlamentuari igorri beharko zaio”

Zioak: Korporazioari eginkizun gehiago esleitze aldera Nafarroako Gobernuari oro har emandako baimen bat denez gero, uste dugu, gutxienez ere, Nafarroako Parlamentuak horren berri izan behar duela, kontrol lana egin ahal izateko.

7. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2.2. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

2.2. artikulua.

“a) Sozietateen funtzionamendua eta jarduerak koordinatzea, haien organoen bitartez, eraginkortasun, eragimen, gardentasun eta balio-sorkuntzaren irizpideak aintzat hartuz”

Zioak: ELGA-Ekonomia Lankidetzeta eta Garpenerako Antolakundeak enpresa publikoaren korporazio-gobernuari buruzko jarraibide batzuk eman zituen 2005ean; jarraibide nagusietako bat gardentasuna zen, eta horretarako, besteak beste, gomendatzen zuen informazioa zabaldu behar zela, enpresen alderdi guztiak jasoko zituzten txostenen bidez.

8. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

2,2. artikulua.

“c) Aginduak, jarraibideak eta prozedurak diseinatu, onartu eta haien jarraipena egitea, arlo hauetara lotutako gaietan: aurrekontuak, inbertsio planak, plan estrategikoak, finantzaketa eta baliabide berekien egiturak, bazkide politikak, barne kontrola, kalitatea, homogeneizazioa, administrazio arau-

bidea, partaidetzako sozietateen administrazio kontseiluetako kideak hautatzeko eta horiei ordaindutako irizpideak, barne antolaketa, langileen arloko politikak, Korporazioaren irudia, informazioaren teknologiak, Korporazioaren erantzukizun soziala eta beste edozein, hori guztia ezertan ukatu gabe Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen esparruan, aurrekontu, finantzaketa eta ekonomia eta kontabilitateko kontrol eta informazioaren arloetan eman ditzakeen arauak eta jarraibideak.

Aurreko agindu, jarraibide eta prozedurak partaidetzako sozietate bakoitzean ezarri eta garatuko dituzte haren organoek.

Kudeaketa plana prestatuko da urtero, eta hartan jasoko dira, modu argi eta neurgarrian jaso ere, adierazleen bidez, Korporazioaren nahiz partaidetzaren handiena Korporazioarena den enpresa bakoitzaren kudeaketa-helburu orokorrak eta berriak, letra honetan jasotzen direnak. Behin kudeaketa plan hori onetsita, Nafarroako Parlamentuari jakinaraziko zaio”

Zioak: Gure ustez, funtsezkoa da Korporazioak hautapen-irizpide profesional batzuk prestatzea partaidetzako sozietateen administrazio kontseiluetako kideak izendatzeko, eta funtsezkoa da orobat partaidetzako sozietateetako kontseilariei ordaintzeko irizpide orokor batzuk egotea ere.

Nahitaezkoa iruditzen zaigu, halaber, Korporazioak kudeaketa plan bat egitea urtero, erdietsi nahi diren helburu orokorren eta berriak adierazle neurgarriak baliatuta, hala Korporazioarena berarena nola partaidetzaren handiena Korporazioarena den enpresena. Azkenik, enpresa horietako batzuek Nafarroako aurrekontuetako dirua jasotzen dutenez, beharrezkoa iruditzen zaigu kudeaketa plan horren berri ematea Nafarroako Parlamentuari.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Korporazioaren eta zerbitzuen sektoreko haren sozietateen alderdi ezberdinak koordinatzea eta homogeneizatzea”

Korporazioaren plan estrategikoan ondokoak ezarriko dira: kontseiluak osatzeko behar diren irizpideak, Administrazioaren mandatuak egiteko

modua, horien kudeaketa eta betekizunak, aplikatu beharreko prezioak eta kudeatzaileekiko irizpideak; betiere, honakoak jasoko dituztenak: kudeatzaileen eta administrazio kontseilueta kideen lanbide-profila, zuzendaritza-estiloak, ordainsarien mugak eta kontrola eta abar”

Zioak: Sozietate publikoak eta Korporazioa bera kudeatzen dutenen profesionalizazioari eman nahi zaio lehentasuna, bai eta eskarmentuaren eta ezagutzen maila eta sozietatearen helburua eta konpainien jarduerak bat etortzeari ere.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berri hau proposatzen da:

“3. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.ren kudeaketa organoak.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren kudeaketaz eta administrazioaz administrazio kontseilu bat arduratuko da; kontseilu horretako kideak ondarearen arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoarekin bat izendatuko dira.

2. Administrazio Kontseiluko kide izanen dira, betiere:

a) Martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legeko 2. artikulua arautzen duen Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko taldeetako bakoitzeko bi kide.

b) Parlamentuan ordezkariak duten talde politikoetako ordezkariak, bermatuta parlamentu-talde bakoitzak kide bat izanen duela.

Zioak: Uste dugu komenigarria dela parte-hartze sozial eta politikoa ahalbidetzea Korporazioaren kudeaketan.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 3 artikuluko 2. idatz-zatiaren amaieran ondokoa gehitzea proposatzen da:

“Administrazio Kontseiluko kideen kopurua gutxienez ere bederatzitik gehienez ere hogeita batera bitartekoa izanen da”

Zioak: Arrazoizko kopuru bat ezartzea.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatian lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“Administrazio Kontseiluko lehendakaria Nafarroako Parlamentuak proposatuko dio Nafarroako Gobernuari, eta honek kontseilari izendatuko du, Administrazio Kontseiluak hauta dezan”

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta Kontseiluko kideen lanbide-profila zehaztea.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari beste idatz-zati bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Genero ikuspegia sartzea administrazio kontseiluen osieran. Sexu-parekotasuna. Lege honen bidez araututako sozietateen administrazio kontseiluen osierak gizonen eta emakumeen arteko proportzionaltasuna gordeko du, % 50 gutxi gorabehera. Alegia, emakumezko edo gizezko kontseilariak ezin izanen dute egin % 60 baino gehiago.

Zioak: erantzukizun organoetara eramatea gizon eta emakume kopuru bera.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 3. artikuluari idatz-zati bat, 4.a, gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu Administrazio Kontseiluko kideak, hiru Nafarroako Parlamentuak proposatuta eta gainontzekoak ekonomiaren eta berrikuntzaren alorrekin lotutako profesionalen eta teknikarien eta ekonomia eta gizarte eragileei lotutako pertsonen artean. Gai-

nontzeko hiru “taldeen artean” bakoitzak herena. Eta, betiere, kontseilarien profila sozietatearen xedeari egokituta.

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta Kontseiluko kideen lanbide-profila zehaztea.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 4 artikuluko 1.a) letraren amaieran ondokoa gehitzea proposatzen da:

“zeina Nafarroako Gobernuak soilik sinatu ahalko baitu”.

Zioak: Ezin izatea administrazioaren eremutik kanpo hartu munta horretako erabakiak.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berri hau proposatzen da:

“6. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren langileriaren arloko araubidea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren langileen kontratazioa Lan Zuzenbideari lotuko zaio.

Edozein kasutan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k behar den prozedura ezarriko du, bere langileen hautaketa publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat eta proba objektiboen bidez egin dadin ziurtatzeko. Goi zuzendaritzako langileak kontratatzerakoan, aldiz, ez da horrela jokatu; izan ere, halakoetan hautaketa lan harreman mota horri datzekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

Zioak: Gure ustez, testu honek hobeki zehazten ditu kontratazio arloko bermeak.

17. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 6. artikuluko hirugarren lerrokadan “publikotasuna” ere aipatzea. Hona testu berria:

Edozein kasutan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.U.k behar den prozedura ezarriko du, bere langileen hautaketa publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat egin dadin ziurtatzeko. Goi zuzendaritzako langileak kontratatzerakoan, aldiz, ez da horrela jokatu; izan ere, halakoetan hautaketa lan harreman mota horri datzekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

Zioak: Sozietate horiek sortutako enplegu zuzenean herritar guztiek parte hartu ahal izatea.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluan beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Zerbitzuen sektoreko sozietateek berez taxutzen dute esparru bereki eta berariazkoa, negoziazio kolektiboaren ondorioetarako. Hortaz, hitzarmen kolektiboa negoziatu eta zertzen dela sustatuko da, eta sozietate bakoitzak hori zabaldu edo/eta hobetu ahalko du”.

Zioak: Negoziazio kolektiborako bidea ematea, giza-ekipoen taxuketa etengabe laguntzeko.

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua amaieran beste hiru lerrokada gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“– Lan-kontratudunak hautatzeko prozedura hori nahitaezko baldintza izanen da ez bakarrik langile finkoak kontratatzeko, ezpada behin-behineko langileak kontratatzeko ere; kasua bada, itxaron edo erreserba zerrendak sortu ahalko dira, zeinak Nafarroako Parlamentuari igorri beharko

zaizkio, bai eta jendaurrean jarri ere, herritarrek horren berri izate aldera.

–Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak urtero argitaratuko ditu bere plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoaren aurreikuspena.

– Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak urtero aurkeztuko die Nafarroako Gobernuan ondare arloko eskumena duen departamentuari eta Nafarroako Parlamentuari Administrazio Kontseiluaren nahiz Korporazioko goi zuzendaritzako langileen ordainsari finko eta aldakor guztien aurrekontuaren eta kitatutakoaren kontua eta ordainsari horiek zeri zor zaizkion, bai eta partaidetzako sozietate guztienak ere.

Zioak:

1. lerrokada. Gure ustez, lan-kontratudunak hautatzerakoan berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak errespetatuko dituen prozedura bat egoteaz gain, prozedura horrek publikoa izan behar du, Korporazioaren kudeaketa gardenagoa izan dadin.

2. lerrokada. Enpresa publikoetako kontratazioa Administrazioak sortutako enplegutzat hartu behar da, eta, tratamenduari dagokionez, publikotasunari asimiliatu.

3. lerrokada. Uste dugu beharrezkoa dela informazio hori, gardentasuna areagotzeko.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

20. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

7 artikuluko lerrokada berria:

“Era berean, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren kudeaketa-organoek Nafarroako Parlamentutik egiten zaizkion informazio eskariei erantzun beharko diete, eta ezin izanen da inolaz ere ulertu informazio horiek urratu egiten dutela Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bategina onesten duen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuko 127 quater artikuluan eta horrekin bat datozenetan administratzaileei ezartzen zaien isilekotasuna gorde beharra.”

Zioak: Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietate publikoa denez, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 14. artikulua arabera Parlamentuari informazioa ematera behartuta dago. Halere, isilekotasuna gorde beharrari buruz Nafarroako Gobernuak zenbait departamentuk egin duten interpretazioa ikusita, uste dugu Sozietate Anonimoen Legeko 127 quater artikulua ezartzen duen isilekotasuna gorde beharraren lege-salbuespena jaso beharra dagoela.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berri hau proposatzen da:

“8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzeneko titularitateko sozietateen kapitalaren adierazgarriak diren akzioak eta partaidetzak sartzea.

1. Nafarroako Gobernuak, ezertan ukatu gabe merkataritza eta administrazio arloko legeekin bat beharrezkoak diren eragiketa eta negozio juridikoak, erabakiko du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzeneko titularitateko akzio eta partaidetza guztiak, sozietate publikoen kapitalaren adierazgarriak direnak, osorik edo hein batean.

2. Sozietate publiko berri bat sortzen denean edo edozein entitatearen akzioak edo partaidetzak zuzenean eskuratuz gero, Nafarroako Gobernuak erabakiko du nola sartuko diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n, hala egiten bada.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren sozietateen kapitalaren adierazgarriak diren akzio eta partaidetzak titularitatea aldatzeko ekintzak ondarearen arloan aplikatzeko den araudian aurreikusitako moduan egiten dira, eta ondorio berberekin.”

Zioak: Gure ustez, ondoko printzipioa ezarri beharra dago: sozietate publiko guztiak sartu behar dira Korporazioan.

22. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“ezertan ukatu gabe merkataritza eta administrazio arloko legeekin bat beharrezkoak diren eragiketa eta negozio juridikoak” esan beharrean, “beharrezkoak diren jarduketa juridikoak alde aurretik eginda” esanen du.

Zioak: Nabarmen hobetzen du testua.

23. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“Nola sartuko diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n” jarri beharrean, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartzeko modua” jarriko du.

Zioak: Nabarmen hobetzen du testua.

**10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****24. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berri hau proposatzen da:

10. artikulua. Partaidetzako sozietateen antolaketa jarduera sektoreen arabera.

1. Bere partaidetzako sozietateak antolatu eta kontrolatze aldera, eta ezertan ukatu gabe bazkide den aldetik merkataritzaren arloko legeekin bat izan ditzakeen ahalmenak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k proposatuko du partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateak bi jarduera sektoretan sailkatzea: Administrazioaren sektorea eta merkatuaren sektorea. Proposamen horrek ondarearen arloan eskuduna den departamentuak onesten duenean izanen ditu ondorioak.

2. Administrazioaren sektorean sartuko dira, eta beraz hurrengo artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako berezitasunen menpe geratuko, nagusiki eta modu egonkorrean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat edo haren kontura zerbitzuak emateko jardueretan aritzen direnak.

3. Merkatuaren sektorean sartuko dira, eta beraz hurrengo artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako berezitasunen menpe geratuko, nagusiki eta modu egonkorrean industriaren edo merkataritzaren arloko jardueretan aritzen direnak.

4. Sozietate bakoitza bi jarduera sektore horietako batekin lotzeko, kontuan hartuko da sektorean sartzea eragin zuten baldintzek denboran irauten duten, eta beraz, baldintza horiek aldatuz gero berriz eginen da sailkapena.

5. Sozietateak Administrazioaren sektorean sartzek ez du nahitaez berarekin ekarriko ohiko funtzionamendua dirulaguntza publikoen mende egotea.

Zioak: Gure ustez, testu berriak hobetu egiten du Administrazioaren sektoreaz ematen den definizioa, Korporazio osoari baitagokio interes publikoa.

25. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

10.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Administrazioaren sektorea eta merkatuaren sektorea” aipatzen den artikuluko guztietan, “zerbitzuen sektorea eta ekonomian parte hartzearen sektorea” agertuko da horren ordean.

Zioak: Nabarmen hobetzen du testua.

**11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****26. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berri hau proposatzen da:

“11. artikulua. Administrazioaren sektorea eta merkatuaren sektorea.

1. Administrazioaren sektorearen barrenean dauden sozietateek, besteak beste, arau hauek bete beharko dituzte:

a) Haren jarduna, nagusiki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzako zerbitzuak ematera bideratuko da, edo haren kontura herritarrei zerbitzuak ematera, interes publikoa asebetetzea irizpide.

b) Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Legearen aplikazioaren menpe geldituko dira, haren 2.1.e) artikularekin bat.

2. Merkatuaren sektorearen barrenean dauden sozietateek, besteak beste, arau eta jarduketaren printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Haien kudeaketaren xedea, batez ere, balioa eta etekin ekonomikoak sortzea izanen da, errentagarritasunaren printzipioarekin bat.

b) Haren jarduera merkatuko arauak zuzenduko dute.

c) Ezin izanen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen ente instrumentalaren izaera aitortu Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 8. artikuluari jarraikiz.

Zioak: Gure ustez, proiektuko 1.b) artikulua ez da beharrezkoa, 6. artikulua gauza bera dioelako; 1.c) artikulua, berriz, beharrezkoa ez izateaz gain, nahasgarria da, iradokitzen baitu merkatuaren sektorea Parlamentuaren kontrolatik at geldi daitekeela, Foru Hobetzearekin eta Parlamentuaren Erregelamendurekin bat.

27. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.1 artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

11.1. artikulua.

“b) Haren lan-kontratudunen kontratazioa Lan Zuzenbidearen arabera izanen da, eta behar den prozedura ezarriko da langileen hautaketa publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat egin dadin ziurtatzeko. Goi zuzendaritzako langileak kontratatzerakoan, aldiz, ez da horrela jokatu; izan ere, halakoetan hautaketa lan harreman mota horri datzekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

Lan-kontratudunak hautatzeko prozedura hori Nafarroako Parlamentura igorri beharko da, bai

eta jendaurrean jarri ere, herritarrek horren berri izate aldera.

Zioak: Gure ustez, lan-kontratudunak hautatzekoan berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak errespetatuko dituen prozedura bat egoteaz gain, prozedura horrek publikoa izan behar du, Korporazioaren kudeaketa gardenagoa izan dadin.

28. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.1.b) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Berdintasun” hitzaren aurretik “publikotasun” hitza sartuko da.

Zioak: Aurreko beste zuzenketa batzuekin bat, herritar guztiek izan dezaten aukera sozietate horiek sortutako zuzeneko enplegu bat izateko.

29. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.1.c) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

11.1.c) artikulua.

“c) Aintzat hartu beharko dituzte Nafarroako Parlamentuak eginiko informazio-eskaerak, eta ezin izanen da inolaz ere ulertu informazio horiek urratu egiten dutela Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bategina onesten duen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuko 127 quater artikuluan eta horrekin bat datozenetan administratzaileei ezartzen zaien isilekotasuna gorde beharra; horien jarduera, berriz, Parlamentuaren kontrolaren menpe geldituko da, arloan aplikatzekoak diren foru legeetan aurreikusitako moduan eta iraupenarekin”

Zioak: Gure ustez, sozietate publikoek, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 14. artikuluari jarraikiz, Parlamentuari informazioa eman behar diote. Halere, isilekotasuna gorde beharri buruz Nafarroako Gobernuak zenbait departamentu egin duten interpretazioa ikusita, uste dugu Sozietate Anonimoen Legeko 127 quater artikulua ezartzen duen isilekotasuna gorde beharriaren lege-salbuespena jaso beharra dagoela.

30. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.1. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa.

11.1. artikulua bukaeran d) letra berri bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Inguruarekiko konpromiso etikoa, enpresen erantzukizun soziala, kalitateko enplegua sortzea... eta gisako baloreak jasotzea. Bai eta zerbitzu publikoak hobeki ematea ere.”

Zioak: Balio etiko horiek eta gizarte erantzukizuneko konpromisoak sartu behar dira Korporazio Publikoaren sorreran.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.2. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa.

11.2. artikulua bukaeran d) letra berri bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Inguruarekiko konpromiso etikoa, enpresen erantzukizun soziala, kalitateko enplegua sortzea eta gisako baloreak jasotzea, bai eta zerbitzu publikoak hobeki ematea eta Nafarroako ekonomia-aren lehiakortasuna sustatzea ere.”

Zioak: Balio etiko horiek eta gizarte erantzukizuneko konpromisoak, lehiakortasuna sustatzearekin bat, Korporazio Publikoaren sorreran jaso behar dira.

32. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.2. artikuluar beste letra bat, d), gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

11.2. artikulua.

“d) Haren lan-kontratudunen kontratazioa Lan Zuzenbidearen arabera izanen da, eta behar den prozedura ezarriko da langileen hautaketa publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat egin dadin ziurtatzeko. Goi zuzendaritzako langileak kontratatzerakoan, aldiz, ez da horrela jokatu; izan ere, halakoetan hautaketa lan harreman mota horri datzekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

Lan-kontratudunak hautatzeko prozedura hori Nafarroako Parlamentura igorri beharko zaio, bai eta jendaurrean jarri ere, herritarrek horren berri izate aldera.

Zioak: Gure ustez, lan-kontratudunak hautatzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak errespetatuko dituen prozedura bat egoteaz gain, prozedura horrek publikoa izan behar du, Korporazioaren kudeaketa gardenagoa izan dadin.

33. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.2. artikuluar beste letra bat, e), gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

11.2. artikulua.

“e) Aintzat hartu beharko dituzte Nafarroako Parlamentuak eginiko informazio-eskaerak, eta ezin izanen da inolaz ere ulertu informazio horiek urratu egiten dutela Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bategina onesten duen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuko 127 quater artikuluan eta horrekin bat datozenetan administratzaileei ezartzen zaien isilekotasuna gorde beharra; horien jardura, berriz, Parlamentuaren kontrolaren menpe geldituko da, arloan aplikatzekoak diren foru legeetan aurreikusitako moduan eta iraupenarekin.”

Zioak: Foru Lege proiektuko 10.1 artikulua eta azken xedapenetako lehenaren eta bigarrenaren arabera, merkatuaren sektorean sartzen diren sozietate guztiak dira sozietate publiko; horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 14. artikuluar jarraikiz, gogorazi behar dugu Parlamentuari informazioa eman behar diotela. Gainera, isilekotasuna gorde beharri buruz Nafarroako Gobernuak zenbait departamentu egin duten interpretazioa ikusita, uste dugu isilekotasuna gorde behararen lege-salbuespena ere jaso beharra dagoela.

34. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Enmienda de adición de un nuevo artículo al final del articulado (artículo 12).

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu Korporazioko sozietateen Administrazio Kontseiluko kideak, hiru Nafarroako Parlamentuak proposatuta eta gainontzekoak ekonomiaren eta berrikuntzaren alorrekin lotutako profesionalen eta teknikarien eta ekonomia eta gizarte eragileei lotutako pertsonen artean. Hiru “talde” horien artean, bakoitzak here-na. Eta, betiere, kontseilarien profila sozietate bakoitzaren xede sozialari egokituta”

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta kontseiluetako kideen lanbide-profila zehaztea.

35. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikuluen bukaeran beste artikulua bat gehitze-ko zuzenketa (13. artikulua).

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Parlamentuaren kontrola.

Korporazioko Administrazio Kontseiluko lehen-dakariak, zuzendari nagusiarekin batera, Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean eginen du agerraldia, urtean gutxienez ere bi aldiz eta jardura berrien garrantziak eskatzen edo erreklamatzeko duen bakoitzean, urteko aurreikuspenei eta ekitaldi bakoitzean eginiko kudeaketari buruz informatzeko. Informazio horrek sozietate guztiak hartuko ditu”.

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta kontseiluetako kideen lanbide-profila zehaztea.

36. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikuluen bukaeran beste artikulua bat gehitze-ko zuzenketa (14. artikulua).

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Parlamentuaren kontrola. Zuzendari nagusia izendatu aurretik, Administrazio Kontseiluko lehen-dakariak agerraldia eginen du Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, izendatzeko asmoa duenaren profilari eta hura izendatzeko

motibazioari buruz hitz egiteko. Errelebo kasuan, aginduzkoa izanen da berdin jokatzeari”.

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta kontseiluetako kideen lanbide-profila zehaztea.

37. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikuluen bukaeran beste artikulua bat gehitze-ko zuzenketa (15. artikulua).

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Parlamentuaren kontrola. Zuzendari nagusia izendatu aurretik, Administrazio Kontseiluko lehen-dakariak agerraldia eginen du Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, izendatzeko asmoa duenaren profilari eta hura izendatzeko motibazioari buruz hitz egiteko. Errelebo kasuan, berdin jokatu beharko da nahitaez”.

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta kontseiluetako kideen lanbide-profila zehaztea.

38. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikuluen bukaeran beste artikulua bat gehitze-ko zuzenketa (16. artikulua).

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Parlamentuaren kontrola. Administrazio organoen ordezkariak eta Korporazioko nahiz lege honen araupetzearen xede diren sozietateen kudeaketaren arduradunak Parlamentuko Mahaiak erabakitzen dituen saio guztietan agertuko dira, parlamentu-taldeek eskatuta, haiek jarduerari, funtzionamenduari, egiturari eta beste edozein inguruabarri buruz eskatzen dioten informazioa emateko, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera eta, gutxienez ere, Nafarroako Gobernuak daukan betebeharraren maila berarekin”.

Zioak: Parlamentuaren kontrolerako, gardentasunerako eta informaziorako tresnak ezartzea eta kontseiluetako kideen lanbide-profila zehaztea.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

39. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo xedapen gehigarrian 4. idatz-zati berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Lehenengo xedapen gehigarria.

“4. Nafarroako Parlamentuari inbentario hori eta hartan egiten diren aldaketak jakinaraziko zaizkio”

Zioak: Gure ustez, Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen ondareari eta hartan gertatzen diren aldaketei buruzko informazioa eduki behar du.

40. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du:

“Xedapen gehigarria Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren gaineko Parlamentuaren kontrola.

1. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendutik eta gainontzeko foru legeetatik heldu diren kontrolen aplikazioaz gain, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren Administrazio Kontseiluko kideak behartuta egonen dira kasuan kasuko batzordean agerraldia egitera, hala eskatzen zaien guztietan, kontseilu horren kudeaketaren berri emateko.

2. Administrazio Kontseiluak bere jardunari eta kudeaketari buruzko txostena eginen du urtero, eta hartan zehaztuko du sektore eta sozietate publiko bakoitzaren jarduna eta kudeaketa. Txostena Nafarroako Parlamenta igorriko du Foru Komunitateko organo eskudunak”

Zioak: Gure ustez, hobetu egin behar da Parlamentuaren kontrola.

41. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Eratzen denetik sei hilabeteko epean, Korporazioaren Administrazio Kontseiluak plan estrategiko bat onetsiko du; plan horretan, foru lege honek ukitutako sozietateak berrantolatze eta berregituratzeko programa orokor bat jasoko da, eta orobat jasoko dira zer neurri hartu behar diren sozietateak erabat nahiz hein batean desegiteko, bat-egiteko edo ezabatzeko, baldin eta helburu edo jarduera berberak badituzte beren artean nahiz Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez”

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da horrela jokatzeara.

**XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

42. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Testu berri hau proposatzen da:

“Bigarren xedapen iragankorra. Sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartzeko epea.

Foru lege honetan ageri diren sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak eransteko epea lau hilabetekoa izanen da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ri eratzen denetik hasita”

Zioak: Gure ustez, Korporazioan sozietate publiko guztiek egon behar dutelako printzipioari eutsi behar zaio.

43. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen iragankorrari gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapenaren amaieran ondokoa gehitzea:

“bat-egiteko, xurgatzeko, banatzeko eta desegiteko neurriak jasoko dituena.”

Zioak: Xedapen horrek neurri horiek jaso behar dituela uste dugu.

44. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen iragankorraren amaieran lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Hirugarren xedapen iragankorra.

Lerrokada berria. “Proposamen hori Nafarroako Parlamentura ere igorriko zaio.”

Zioak: Gure ustez, Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen ondareari eta hartan gertatzen diren aldaketei buruzko informazioa eduki behar du.

45. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Zerbitzuen arloko sozietateak birdimentsionatu eginen dira, baldin eta haien xedea edo jarduna bat badator hein handi batean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak emandako zerbitzuekin, Administrazioak bere gain har ditzan zerbitzu horiek zuzenean, eta, ondorioz, giza baliabideak eta baliabide materialak bereganatuko ditu.”

Zioak: Xedapen horrek neurri horiek jaso behar dituela uste dugu.

46. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Laugarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarren xedapen iragankorra.

Hirugarren xedapenean ezarritako urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak ondoko erabakiatarik bat hartuko du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartzea aurreikusita ez dagoen sozietate publikoei dagokienez: enpresa horiek desegin edo enpresa horietako partaidetza utzi, egoki irizitako bide juridikoa baliatuta.

Xedapen honek ondoko enpresa publikoei eragiten die:

– Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.A. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

– Centros Tecnológicos de Navarra, S.A. (CETENASA). Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

– MIYABI, Espacios Urbanos Bioclimáticos. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

– Natural Climate System, S.A.

– Navarra de Verificaciones Legales, S.A. - Potasas de Subiza, S.A.

– Producción Informática de Navarra. (PIN). Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

– Sal Doméstica S.A.

– Salinas de Navarra, S.L.

– Start Up Capital Navarra, S.A. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

Zioak: Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortuz gero, ez dago justifikatuta partaidetza izatea Korporazioaren helburuekin bat ez datozen enpresetan edo enpresa publiko izateko baldintzak betetzen ez dituztenetan.

**AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

47. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako lehenean kenketa egiteko zuzenketa.

Azken xedapenetako lehenean, Bi atala osorik kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez dugu beharrezkotzat jotzen.

48. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako lehenean kenketa egiteko.

Azken xedapenetako lehenean, Hiru atalean, 81. artikuluko 2. idatz-zatia kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez dugu beharrezkotzat jotzen.

49. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako lehenean kenketa egiteko zuzenketa.

Azken xedapenetako lehenean, Lau atalean, 82. artikuluko 2. idatz-zatia kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez dugu beharrezkotzat jotzen.

50. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Azken xedapenetako lehenean, Bi atala aldatzeko zuzenketa:

Testu berri hau proposatzen da:

“Bi. 2. artikuluko f) letra aldatu da, testu hau izan dezan:

“f) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak dira Nafarroako Gobernuak sortutako merkataritza-sozietateak, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde publikoen partaidetza zuzenak edo zeharkakoak sozietatearen kapitalaren gehiengo absolutua osatzen badu. Orobat dira sozietate publikoak Foru Komunitateko Administrazioak partaidetza handiena dueneko sozietate haiek, dela zuzendaritza, administrazio edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz haren erakunde publikoen eta enpresen bidez izendatzeko ahalmena duelako, dela sozietate horien baliabide berekiak eratzeko egindako ekarpena ere handiena delako.”

Zioak: Sozietate publikoaren definizioa Europako Erkidegoko zuzenbidera egokitzea.

51. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan bigarrena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dugu beharrezkotzat jotzen.

52. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan hirugarrena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoei 6/1999 Foru Legeak asteko 35 orduko lanaldia ezartzen du gaur egun –hau da, urteko 1.592 orduko kopurua–, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, zuzenean nahiz zeharka, kapitalaren partaidetzan gehiengoa duen enpresa guztientzat. Gainera, 4. artikulua bidez, Nafarroako Gobernuak lanaldiaren murrizketen aplikazioa sustatu behar du kapitalaren partaidetzaren bat duen enpresa guztietan; 5. artikulua bidez, berriz, produkzio-sektore guztietan lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatu behar ditu.

Hori dela eta, gure ustez, egungo lege indarduna aldatu nahi izatea asteko 35 orduko lanaldiaren aplikazioa alde batera uzteko lan industrial nahiz merkataritzaren arlokoa egiten duten sozietate publikoetan, lege horren onspenean aintzat hartu ziren helburu eta printzipioen aurkakoa da.

ERANSKINARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

53. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Eranskina kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, Korporazioan, sozietate publiko guztiek egon behar dute.

54. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Eranskinean gehiketa egiteko zuzenketa. Nafarroako Gobernuak akzioen gehiengo duen sozietate guztien izenak gehitzea edo hitzez hitz aipatzea proposatzen dugu.

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da horrela jokatzeko.

55. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Eranskinean gehiketa egiteko zuzenketa. Nafarroako Gobernuak partaidetzaren gehiengo ez duen sozietateak edo partaidetzaren bat duen sozietateak aipatzea.

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da horrela jokatzeko.

ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

56. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa, artikuluetan proposaturiko aldaketak bertan ere ager daite-

zen. Besterik gabe hura egokitzea proposatzen dugu.

Zioak: Foru legearen xedea hobeki egokitzea zioen azalpeneko testuari.

57. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. Egungo zioen azalpenaren bukaeran, honako testua gehitzea proposatzen dugu:

“Azken batean, lege mailako arau honekin, Nafarroako Foru Komunitateari foru erkidegoko Administrazioaren kudeaketa hobetzeko tresna bat eman nahi zaio. Honakoak izanen dira horren oinarriak: kudeaketa publikoaren kalitatea hobetzeko irizpideak, Nafarroako gizarte osorako balioak eta aberastasuna sortzen laguntzea, gure erkidegoko gizarte ongizatearen mailak finkatzea eta hobetzea eta Administrazio osoa eta enpresen sektore publikoa modernizatzea”

Zioak: Foru legearen xedea hobeki egokitzea zioen azalpeneko testuari.

58. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenean beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Araupetze honen asmoa da, halaber, behar den eta nahi den gardentasuna ematea foru erkidegoko enpresen sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari eta foru erkidegoak beste entitate edo proiektu batzuetan duen partaidetzari, eta Parlamentuak horren guztiaren kontrola egin ahal izateko behar diren tresnak ezartzea; horretarako, izan ere, kudeaketa administratiborako tresna berriak erabiltzea ahalbidetuko da, baina horrek ez du jardueretan inongo opakutasunik ekarriko”

Zioak: Foru legearen xedea hobeki egokitzea zioen azalpeneko testuari.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa legea aldatzea.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

2. artikulua. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatzea.

3. idatz-zatia gehituko zaio Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 112. artikuluari. Hona testua:

“3. Aintzat hartu beharko dituzte Nafarroako Parlamentuak eginiko informazio-eskaerak, eta ezin izanen da inolaz ere ulertu informazio horiek urratu egiten dutela Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bategina onesten duen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuko 127 quater artikuluan eta horrekin bat datozenetan administratzaileei ezartzen zaien isilekotasuna gorde beharra; horien jarduera, berriz, Parlamentuaren kontrolaren menpe geldituko da, arloan aplikatzekoak diren foru legeetan aurreikusitako moduan eta iraupenarekin”

Zioak: Nafarroako Enpresa Korporazio Publiko sozietatea sortzeko Foru Lege proiektuko 10.1 artikulua eta azken xedapenetako lehenaren eta bigarrenaren arabera, merkatuaren sektorean sartzen diren sozietate guztiak dira sozietate publiko; horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 14. artikuluari jarraikiz, gogorazi behar dugu Parlamentuari informazioa eman behar diotela. Ikusita, halaber, isilekotasuna gorde beharri buruz Nafarroako Gobernuak zenbait departamentuk egin duten interpretazioa, uste dugu Sozietate Anonimoen Legeko 127 quater artikulua ezartzen duen isilekotasuna gorde beharrene lege-salbuespena jaso beharra dagoela.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenengoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa legea aldatzea.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa legea aldatzea.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Legearen izenburua aldatzeko zuzenketa.
Hona testua:

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua?

Zioak: Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legeko 112. artikulua aldatze aldera aurkeztu dugun zuzenketarekin bat.

Foru Lege proiektua, hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzekoa.

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2009ko martxoaren 27ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

OSOKO ZUZENKETAK**1. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztua, Hirigintza eta etxebizitza arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakion.

Zioak: Hirigintza eta etxebizitza arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektuak, bere edukian, egungo krisi ekonomikoko egoerarekin eta horren aurrean neurri bereziak ezartzeko premiarekin zerikusirik batere ez duten gaiak jasotzen ditu; are gehiago, Lurraldearen Antolamenduari buruzko Foru Legean funtsezko eta muturreko aldaketak eragiten dituzte, bai eta etxebizitza publikoari buruzko legearen filosofian ere. Aldake-

ta horiek, izan ere, etxebizitzaren eraikuntzaren sektorean diharduten enpresa-eragileak babesteko eta haiei etekina emateko balio dute, eta kalte eragiten diete gure erkidegoko hirigintzaren kalitateari eta lurzoruaren okupazioari, bai eta etxebizitza eskuratzeko baldintzei ere.

Gure iritziz, lege proiektuaren edukian behar adinako larritasuna duten elementuak badaude hura gobernuari itzultzeko eta soilik krisiari aurre egiteko neurrietan eragina duten edukien arabera berriz lan dadin eskatzeko.

Horri dagokionez, Nafarroa Bai ez dago ados, ikuspuntu publikotik, prezio mugatuko etxebizitza librearen eredu berria sustatu eta hari hobari fiskalak ematearekin. Izan ere, praktikan, etxebizitza librearen erreskatean ateratzeko jardun publiko bat izanen da hori, gertatzen ari den prezio-jaitsierra eragotzi edo geldiarazi nahi duena. Horrek guztiak kalte egingen die etorkizunean horrelako etxebizitzak erosi nahi dituztenei eta onura ekarriko die etxebizitzaren prezio proportziorik gabea bideratu dituztenei.

Lege proiektuan jasota dago garatzen ari diren edo exekuzio-fasean dauden planetan eraikigarritasuna % 30eraino handitzeko aukera. Eraikigarritasunaren handitze hori ezin da inolaz ere justifikatu, eta ez die inolako onurarik ekarriko etxebizitza publikoa eskatzen duten pertsonen; aitzitik, haren ondorio bakarra izanen da gure erkidegoko hirigintza-garapen desberdinetako sustaizailen negozio- eta onura-tartea handitzea. Ino-

laz ere ez dago krisi ekonomikoko egoerarekin justifikaturik eraikigarritasuna % 30eraino handitzea, etxebizitzaren merkatua eraikitako etxebizitza librez erabat gainezka dagoenean eta etxebizitza berriaren eraikuntza nabarmen gelditu denean.

Nafarroa Bai kezkatuta dago, halaber, lege proiektuak hirigintza arloari begira dauzkan eduki batzuekin: planen eta jarduketan tramitazioko alderdi batzuk errazten ditu; zuzkiduretarako nahitaezko lagapenak gutxitzea; eta Gobernuak sustaturiko udalez gaindiko plan sektorialak arintzea, udalek izan dezaketan esku-hartzearen kaltetan.

Ez gaude inolaz ere ados lege proiektuak Vinsa enpresa publikoari balioa kentzearekin, proiektuan etxebizitza publikoaren agente sustatzaileen egitekoa desagertzen baita, sustatzaile pribatuen mesedetan.

Proiektuko artikuluetan jasotzen diren zergarintzen bitartezko laguntzei dagokien edukietan, onura argia eta garbia ateratzen dute errenta altuko sektoreek, diru-sarreretan mugarik ez dutenek edo Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) sei eta erdi halako bitarteko dirusarrerak dituztenek; baina inolako neurririk ez dago lehendik BOEa bat adjudikatu zaien edo une honetan BOE bat adjudikatu zaien pertsonentzat, zeinek krisik egoeraren eta enplegu-galtzearen ondorioz benetako zailtasunak baitituzte hitzartutako hipotekei aurre egiteko edo hipoteka bat eduki ahal izateko, hain zuzen ere adjudikatu zaien etxebizitza babestua ordaindu ahal izateko.

Nafarroa Bairen ustez, "krisiaren aurkako neurri berezien bidez jarduteko proiektuaren" izenburupean, benetako atzerabide bat ezkutatzeko da hirigintzaren eta etxebizitzaren arloetan; izan ere, horietan, atzera egin nahi da gure erkidegoak garatu izan dituen eta beste erkidego edo lurralde batzuekin alderatuta aitzindariak izan diren aurrerapausoetan.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, ordezkotestua ere baduena, Hirigintza eta Etxebizitza arloko Presako Neurri buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Zioak: Foru Lege proiektua ez dator bat, ezertarako ere, ez idazpuruarekin, ez, inondik ere, egungo egoerarekin. Zioen azalpenak helburu handiak jasotzen ditu, baina legearen hirigintza

arloko edukia, egiaz, gutxi batzuei begira egin dago soil-soilik; izan ere, legeko artikuluen bitartez, gutxi horiek ikusten dute euren lursailen eraikigarritasuna areagotzen dela, udalei egin beharrek lagapenak murrizten direla eta, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzearen aitzakian, benetako "zuloak" sortzen direla legedian, eta "zulo" horiek bi bide irekitzen dituztela: alde batetik, etxebizitza libreak etxebizitza babestu bihurtzeko bide bat irekitzen da, baina, aldi berean, etxebizitza babestua etxebizitza libre bihurtzeko bidea ere bai.

Beste aukera galdu bat dugu honako hau. Ez da asmo handiko lege bat taxutu, zeinaren bidez politika publiko eraginkor batetik ekinen baitzaio etxebizitza bat lortzeko arazo sozial larriari eta zeinaren bidez erabat irauliko baita ondoko egitea: aspaldi honetan, kasurik onenean sinonimoak dira etxebizitza bat lortzeko eskubidea eta bizitza osorako hipoteka baten zama hartu beharra. Halako lege bat taxutu beharrean, sustatzaile pribatuen interesen neurri egindako lege baten aurrean gaudela ematen du.

Lege honek ez du bultzatzen etxebizitza babestuak eraikitzea. Ez du bultzatzen ez alokairuko araubideko etxebizitza babestua ez etxebizitza hutsak gizartean mugitzea.

Alokairuko etxebizitza bultzatu ordez, eta horrekin batera denei –baita mailegu bat abalatu dienik ez dutenei– etxebizitza duin bat lortzeko aukera eman ordez, ez da inolako neurri eraginkorrik hartzen arlo horretan.

Sektorearen egoera ekonomiko zailari aurre egiteko neurri dagokienez, ematen du ezen Gobernuak proposatzen duen irtenbidea dela urbanizazio-kostuak murriztea, herritarren bizikaltatearen kaltetan: aparkatzeko leku gutxiago, zuzkiduretarako lur gutxiago, halako gutxiago, bestelako gutxiago...

Proiektu honetan soilik hitz egiten da sustatzaileen kostuak merkatzeaz, baina hori hiriko etorkizuneko biztanleen bizkar egiten da, espazio publikoak murrizten baitira.

Horri guztiari gehitu behar zaio zerga-trataera pribilegiatua ematen zaiola etxebizitza libreak etxebizitza babestuaren aldean, prezio mugatuko etxebizitza librea sortzean eta Vinsa sozietate publikoaren eginkizunak murriztean (administrazio-kudeatzaile soila izateraino, etxebizitza babestuen sustapenean muntako batere eginkizunik gabe).

Eta hori dena, berriz ere, sustatzaile pribatuen mesedetan.

Proiektu osoan ez dago hitz bakar bat ere hut-sik dauden milaka etxebizitza horiek alokairuaren merkatura ateratzeko moduari buruz.

Hori dela eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak osoko zuzenketa aurkeztu du, ordezkotestua ere baduena.

Nafarroako Gobernuak igorritako testuaren ordezkotestua proposatzen dugu:

ORDEZKO TESTUA

Foru Lege proiektua, hirigintza eta etxebizitza arloko presako neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako herritar guztiek etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko eskubidea daukate. Botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desagerarazteko, interes orokorraren arabera arautuko dute luraren erabilera. Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dagoen arren, gizarte-erakundeak duten Konstituzio hainbat manurekin gertatzen den bezala, gizarte-sektore zabalek zailtasun handiak dituzte etxebizitzarako eskubidea gauzatzeko, ordaintzeko moduko prezioa duen etxebizitza gutxi baitago.

Etxebizitza premia biziko ondasuna da. Hala eta guztiz ere, azken urteetan, krisi ekonomikoak eta higiezinak ezta egin aurretik, etxebizitza librearen prezioaren igoera etengabe, handi eta iraunkorrek argi adierazten zuen finantza-entitate-entzat eta inbertsio-egile pribatuentzat etxebizitza, funtsean, espekulaziorako ondasun bat bilakatua zela, eta botere publikoak, horren aurrean, pasibotasunez jokatzeko ari zirela.

Horrek, gaur arte, honakoa ekarri du: Nafarroako herritarren zati handi batek etxebizitzarik ezin eskuratzea eta etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko konstituzio-eskubidea ezin gauzatzeko. Hala ere, azken hamarkadan etxebizitza bat erosi dutenen zati handi batek finantza-presio handiaren pean erosi dute, eta hori dela eta, egungo krisiarekin batera, egoera ekonomiko oso zailan daude.

Horrenbestez, etxebizitzaren arloko politika publikoak guztiz beharrezkoak izan dira eta beharrezkoak izaten jarraituko dute: etxebizitza planak, babes ofizialeko etxeen sustapenak, dirulaguntzak eta sorospenak, lurzoru-ondare publikoak, hutsik dauden etxebizitzetan esku-hartzea edo alokairu soziala sustatzea.

Hala eta guztiz ere, gaur arte botere publikoek ez dute behar den intentsitateaz jardun merkatu libre espekulatioan etxebizitza bat eskuratze modurik ez duten nafar askok politika publikoen babesean helburu hori bete dezaten.

Horregatik, gizarte-arazo larri honi aurre egiteko, jarrera proaktibo, erabakigarri eta errotikoa behar da. Etxebizitza beharrezko eta oinarritzko ondasun bat da edozein herritarrentzat, eta Administrazio Publikoak hura eskuratze betebeharra dauka. Botere publikoek interes orokorraren menpean egon behar dute; alegia, etxebizitzaren premia soziala asebate behar dute eta hura lortzeko behar diren baliabideak jarri behar dituzte. Etxebizitzaren prezioa "higiezin burbuila" delakoari amaiera emateko beharrezkoa zen beheko joeran hasia da. Botere publikoek beheko joera hori sustatu behar dute, eta ez mugatu, etxebizitzaren merkatuko balioa kostu errealekin balioarekin orekatzeko hain zuzen ere. Horren bidez, azken urteetan merkatu horretan, sustatzaile eta eraikitzaileen onurarako izan diren alimaleko tarte espekulatioak deuseztatuko dira.

Egoera horrekin batera, Nafarroan krisi finantzario eta ekonomiko oso handi bat pairatzen ari gara. Krisi horrek eragin du gure erkidegoan langabeziak % 90 gora egitea azken 18 hilabeteetan. Langabetu horietako ugari eraikuntzaren sektorekoak dira. Langabezi maila horrek, Nafarroako Gobernuak abiarazi dituen ekimen batzuk gorabehera, hazten jarraitzen du gure erkidegoan. Hori dela eta, foru lege honetan jasotako neurriek herritarren etxebizitzaren arloko premiei eta eraikuntzaren sektoreko lan-premiei erantzun nahi diete. Izan ere, sektore horretako indarrak etxebizitzak zaharberritzera eta alokairu babestuko etxebizitzak egitera bideratu nahi dira.

Horrenbestez, foru lege honetako lehenengo tituluan, etxebizitza eskuratze eskubidea aitortzeari buruzko zenbait egin beharrek arautzen dira, bai eta alokairuko etxebizitzari eta etxebizitza hutsei buruzko beste zenbait ere; horiek guztiak, izan ere, beharrezkoak dira etxebizitza duina eta egokia izateko herritarrek dituzten eskubideei erantzunen dien etxebizitza-politika berria garatzeko, bai eta Nafarroako eraikuntzaren sektorea birbideratzeko ere.

Lehenengo artikuluan ezartzen da etxebizitza eskuratze eskubidea eskubide subjektiboa eta unibertsala dela, eta, beraz, herritarrek Administrazioari eskubide horren betetzea juridikoki exijitzeko modukoa.

Botere publikoek, horrenbestez, gizarte-eskubide hori benetan gauzatzera zuzenduriko politikei

behar duten lehentasuna eman beharko diete eta beharrezko baliabideez hornitu beharko dituzte politika horiek.

Laugarren eta bosgarren artikuluetan, alokairuari, etxebizitzaren arloko politika publikoen barrenean, bultzada askoz handiagoa ematen zaio. Aurrekoa oinarri, 4. artikuluan ezartzen da zortzi urtean 12.000 etxebizitza eraikiko direla alokairuan emateko, eta, bosgarren artikuluan jasotzen denez, babes araubideren bati loturiko etxebizitza-ahalmen berriaren gutxienez % 35 alokairuan emateko etxebizitzak izanen dira.

Era berean, hutsik dauden etxebizitzen multzo handia, etxebizitza guztien % 15 gutxi gorabehera, lehenbailehen atera beharra dago alokairuko etxebizitzen merkatura. Legeko 6. artikuluan arautzen da etxebizitza hutsen errolda eginen dela eta foru lege bat onetsiko dela, zeinak etxebizitza hutsak benetan alokairura ateratzeko jarduera publikoen multzoa arautuko baitu, jarduera fiskalak eta desjabetzekoak barne direla.

Foru lege honen bigarren tituluan jasotzen dira, besteak beste, etxebizitzak zaharberritzearen eta eraginkortasun energetikoaren arloko presako zenbait neurri, eraikuntzaren sektorearen jarduera birbideratu nahi dutenak murgilduta egon gareneko eredu ekonomiko jasangaitzak eragindako kolapso-egoeratik ateratzeko.

Azkenean, hirugarren tituluak hirigintzaren arloko zenbait neurri ezartzen ditu. Haien bidez bermatu nahi da politika publikoen exekuzioa eraginkorra izatea, bai eta kudeaketa arintzea ere. Bideanabar, gizarteak jarduera hori kontrolatzeko eta bertan parte hartzeko behar diren tresnak ere ezartzen ditu.

I. TITULUA

Etxebizitza eskuratzeko eskubidea aitortzeari, alokairuko etxebizitzari eta etxebizitza hutsei buruzko neurriak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen funtsezko xedeetako bat da bertako biztanleek Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko duten eskubide subjektibo eta unibertsala bermatzea.

2. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta unibertsala erabiltzea bermatuko duen politika publikoen multzoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio guztiek eratuko dute eta exekutatu dute.

2. artikulua. Eskubidearen titularrak.

Foru lege honetako 1. artikuluan etxebizitza eskuratzeko aitorturiko eskubidearen titularrak dira Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsonak, baldin eta gutxienez ere hiru urte badaramatzate etenik gabe erroldatuta Nafarroako edozein udaletan eta, orobat, Nafarroan Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzko 8/2004 Foru Legeko III. tituluko 1. kapituluan etxebizitza babestua lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badiuzte.

3. artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboaz eta unibertsalaz baliatzea.

Nafarroako Gobernuak bermatu behar die foru lege honetan aitorturiko eskubidearen titularrei, hots, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboren eta unibertsalaren titularrei, eskubide horretaz baliatu ahal izatea eta beraz etxebizitza bat eskuratzea, gehienez ere eskubideaz baliatzeko eskatu zutenetik hiru urteko epean.

4. artikulua. Alokairuko araubideko etxebizitzen ondare publikoa.

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko du Vinsa sozietate publikoak hurrengo zortzi urteetan 1.500 etxebizitza eginen dituela, gutxienez, urteko, alokairuan emateko; horrela, alokairuan emateko etxebizitzen ondare bat izanen da, eta foru lege honetako 1. artikuluan aitorturiko eskubideaz baliatzea ahalbidetuko da.

Nafarroako Gobernuak errentariei bermatuko die ordaindu beharreko alokairu babestuak ez duela dituzten dirusarreraren % 30 gaintutuko.

5. artikulua. Etxebizitza-garapen berrietan alokairu babestuko araubideko etxebizitzen gutxieneko ehuneko.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 52. artikulua aldaketa.

Artikulu honetako 1. idatz-zatiak ezarritakoaren arabera babes araubideren bati loturiko etxebizitza-ahalmen berriaren % 50 bideratu beharko da, gutxienez, alokairuan emateko etxebizitzak eraikitzea.

6. artikulua. Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatu jartzeko ekintzak.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, hutsik dauden etxeen zerrenda eginen du. Horretarako, arau honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Gobernuak erregelamendu bat onetsiko du non etxebizitza hutsaren kontzeptua definituko duen eta errolda hori egiteko tresnak ezarriko dituen.

Hutsik dauden etxebizitzaren errolda egiterakoan, toki entitateek Nafarroako Gobernuari laguntzeko betebeharrak daukate; horrenbestez, Gobernuari eskatutako informazio guztia helaraziko diote eta errolda egiteko beharrezkoak diren ekintzak gauzatu dituzte.

2. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorriko dio foru lege proiektu bat non zehaztuko baita etxebizitza hutsak alokairuan jarraraziko dituzten ekintzen eta politiken multzoa.

Foru lege horrek jaso beharko dituen ekintzen eta politiken artean egon beharko dute, besteak beste, ekintza eta politika fiskalak eta desjabetzeak.

II. TITULUA

Etxebizitzak zaharberritzearen eta eraginkortasun energetikoaren arloko eta beste arlo batzuetako presako neurriak

7. artikulua. Etxebizitzak zaharberritzeko dirulaguntzak.

1. Zaharberritzearen sustatzaile erabiltzaileei ematen zaizkien dirulaguntzak, Etxebizitzaren arloko Jarduketa Babesgarriak eta Etxebizitzetarako Eraikinen Sustapena arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan jasotakoak, honakoak izanen dira:

Familiaren dirusarrera ponderatuak Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa (IPREM) zenbat halako diren:

2,5 halako, gehienez

- % 25, eraikinak 50 urte baino gutxiago eta 15 urte baino gehiago baldin baditu.

- % 30, eraikinak 50 urte edo gehiago baldin baditu.

- % 40, Lehenetsunez Zaharberritzeko Eremuetan, edo arkitektura-oztopoak kendu eta mugimenezko minusbalioak duten pertsonen onurarako denean, edo eskatzaile batek edo haren ezkontideak 65 urte edo gehiago dituztenean.

- % 50, Lehenetsunez Zaharberritzeko Eremuetako esku-hartze orokorreko proiektuetan.

2,5 halakotik 3,5 halakora bitarte

- % 20, 50 urte baino gutxiagoko eta 15 urte baino gehiagoko erakinetan.

- % 25, eraikinak 50 urte edo gehiagoko baditu.

- % 40, Lehenetsunez Zaharberritzeko Eremuetan.

- % 50, Lehenetsunez Zaharberritzeko Eremuetan esku-hartze orokorreko proiektuetan.

3,5 eta 6,5 halako bitarte.

- % 16, eraikinak 50 urte baino gutxiagoko eta 15 urte baino gehiagoko baldin baditu.

- % 20, erakinak 50 urte edo gehiagoko baldin baditu.

- % 40, Lehenetsunez Zaharberritzeko Eremuetan.

- % 50, Lehenetsunez Zaharberritzeko Eremuetako esku-hartze orokorreko proiektuetan.

2. Aurreko portzentaje horiei 3 puntu gehituko zaizkie kategoriatan orokorreko familia ugarien kasuan, eta 6 puntu kategoriatan bereziko kasuan.

3. Artikulu honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen artean sartuko dira domotika instalatzea, barruko ateak edo zoladurak edo zoruak aldatu edo ordeztzea, bai eta sukaldea eta bainugelak berritzeko lanak ere, ekintza hauetakoren bat behar dutenean: igeltsero lanak, iturgintzakoak, elektrizitatekoak, eskaiolakoak eta zoladurak eta/edo estaldurak aldatzea, eta halaber, komun-ontziak eta bainuontziak/dutxak aldatzea; ez da dirulaguntzarik emanen, ordea, altzariak edo etxetresna elektrikoak erosi edo konpontzeko.

8. artikulua. Etxebizitzaren barneko aldea erreformatzeko dirulaguntza berezia.

Etxebizitzaren arloko Jarduketa Babesgarriak eta Etxebizitzetarako Eraikinen Sustapena arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuari 87.bis artikulua gehitu zaio, testu honekin:

“87. bis artikulua. Etxebizitzak barrutik berritzeko dirulaguntza berezia.

1. Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ditu bizilagunen ohiko bizitoki iraunkorra den edo izan behar den etxeko sukaldea eta bainugelak berritu eta barneko zurajea eta zoladurak edo zoruak ordeztzeko lanak, betiere aurreko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera etxebizitza zaharberritzeko obra baten parte ez direnean.

2. Aurrekontu babesgarriak, foru dekretu honen 78.2 artikuluan ezarritako mugak izan gabe, 4.000 euroko zenbatekoa izanen du gutxienez, eta lan hauek hartuko ditu barne: barruko ateak edo zoladurak edo zoruak aldatu edo ordeztzea, bai eta sukaldea eta bainugelak berritzeko lanak ere, ekintza hauetakoren bat behar dutenean: igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea, eskaiola eta zoladuren edo/eta estalkien aldatzea, bai eta komunak eta bainuontzi/dutxak aldatzea

ere. Altzariak edo etxetresna elektrikoak erosteko edo konpontzeko, berriz, ez da dirulaguntzarik emanen.

3. Dirulaguntza aurrekontu babesgarriaren 100eko 20koa izanen da, gehienez ere 3.000 euro etxebizitza bakoitzeko.

4. Dirulaguntza hauek emateko prozedura laburtua ezarriko da, eta ordainketa eginen da lanak egin direla frogatzen duten agiriak ekarri ondoren, gehienez ere dirulaguntza eman zenetik urtebeteko epean; agiri horien artean egonen dira, nahitaez, etxebizitzaren jabearen erantzukizuneko aitorpena, egindako lanak dirulaguntza lortzeko aurkeztu zen aurrekontuarekin bat datozela adierazten duena, eta lanaren exekuzioari dagozkion faktura guztiak.

5. Nafarroako Gobernuak ikuskapenak eginen ditu, tramitatutako espediente guztietatik batzuk lagin gisa hartuta, egindako lanak eta dirulaguntzak bat datozela egiaztatzeko.

Horretarako, laguntza hauek jasotzen dituzten etxejabeek etxebizitzan sartzen utzi beharko diete lan hori egiteko gaitasun ofiziala izanen duten ikuskatzaileei.

6. Behin artikulua honetan aurreikusitako dirulaguntza eman ondoren, onuradunak ezin izanen ditu laguntza horiek berriz eskatu. Ezin izanen da, ezta ere, beste dirulaguntzarik eskatu jada dirulaguntza jaso zen etxebizitza batean lanak egiteko.

9. artikulua. Etxebizitza efizientzia energetikoa areagotzeko zaharberritzeagatik dirulaguntza.

Foru lege honen 2. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako dirulaguntzen portzentajeak 5 puntu gehituko dira obretan eraginkortasun energetikoaren hobekuntzak aurreikusita daudenean, eta kasuan kasuko kalifikazioan halakotzat hartzen direnean.

10. artikulua. Etxebizitzaren eraikinetan ingurutzaila termikoa zaharberritzea.

Isolamendua handitzeko xedearekin, eraikinetako ingurakari termikoa hobetzeko lanetarako zaharberritze babestuko espedienteak sustatzen dituzten etxejabeen elkarrekin obra horien aurrekontu babesgarriaren 100eko 40ko dirulaguntza jasoko dute, etxebizitza bakoitzeko 5.000 eurokoa gehienez ere.

Ondorio horietarako, eraikin baten ingurakari termikoa kanpoko giroak edo lurrak edo berokuntzarik ez duten beste lokal batzuek ukitzen dituzten eraikuntza elementu guztiek osatzen dutela ulertzen da. Honakoak dira aipatu elementuak: kanpoko eta barneko fatxadak, teilatua, arkupe eta

hegalen gaineko forjatuak eta, kasua bada, lurrarekin nahiz berogailurik ez duten lokalekin –garaje edo biltegi erakoak– kontaktuan dauden forjatuak eta hormak; hori guztia, aplikatzekoak diren arau teknikoak jarraituz.

11. artikulua. Babesturiko etxebizitzaren sustapenean kalifikazio energetikoa lortzeko dirulaguntza.

Eraikin berrien efizientzia energetikoaren ziurtagiria emateko oinarriko prozedura onetsi zuen urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, A, B edo C motako kalifikazio energetikoa lortzen duten proiektuetako etxebizitza babestuen sustatzaileek honako dirulaguntzak eskuratu ahalko dituzte:

- A mailako kalifikazio energetikoa: 40 euro etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

- B mailako kalifikazio energetikoa: 30 euro etxebizitzako metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

- C mailako kalifikazio energetikoa: 20 euro etxebizitzako metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

2. Dirulaguntza etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da, baina sustatzaileak zenbatekoaren erdia, gehienez ere, jaso ahal izanen du behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren, eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa estaltzeko adinako abala aurkezten badu.

12. artikulua. Domotikako instalazioa jartzeko dirulaguntza.

1. Berritik sorturiko etxebizitzetan domotikako instalazioak dituzten proiektuak egiten dituzten etxebizitza-sustatzaileek instalazioaren 100eko 40ko dirulaguntza lortuko dute. Etxebizitza bakoitzeko gehieneko dirulaguntza, berriz, 1.500 eurokoa izanen da. Egin nahi den instalazioak honako gutxienezko baldintzak bete beharko ditu:

- a) Modulu domotiko bat instalatzea, lapurreten eta suteen kontrako segurtasun funtzioak beteko dituen, ur eta gas ihesen berri emanen duena eta urrutitik, telefono linea erabiliz erabil daitekeena.

- b) Instalazioak, gutxienez, kontrol unitate bat izanen du, erabiltzailearen interfazearekin, bertatik kontrolatu ahal izateko sistemaren funtzionalitate desberdinak, bai eta detektagailuak, zundak, kableak, telefono hartuneak, konexioak eta funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren elementu guztiak.

2. Etxebizitza babestuen kasuan, dirulaguntza etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da, baina sustatzaileak zenbatekoaren

erdia, gehienez ere, jaso ahal izanen du behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren, eskutatuko dirulaguntzaren zenbatekoa estaltzeko adinako abala aurkezten badu.

3. Etxebizitza libreen kasuan, berriz, dirulaguntza etxebizitzaren bizigarritasun-zedula lortu ondoren ordainduko da osorik, sustatzaileak hura eskatu ondoren.

13. artikulua. Errentamendua mantentzeko laguntzak.

1. Araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak errentan hartuak dituztenek, IPREMa halako 1,7 baino diru-sarrera txikiagoak izanez gero, dagozkien dirulaguntzak jaso ahal izanen dituzte, hilabete horietan hiru hilabeteko errenta ordaindu gabe baldin badute, gehienez ere, azken hamabi hilabeteetan ordaindu gabe utzi zuten lehenbizikotik kontatuta.

2. Errentariak ezin izanen dira aurreko idatzatian xedatutakoaz berriz baliatu, harik eta, artikuluko honetan aurreikusitako laguntzarako eskubidea eragin zuen azken hilabete ordaindu gabetik urtebete, gutxienez, iragan arte, eta betiere errentak ordainduta badituzte.

14. artikulua. Etxebizitza libreei babestuen kalifikazioa ematea, eta babestutako etxebizitza mota aldatzea.

Foru lege honek indarra hartu aurretik Jabetzaren Erregistroan behar bezala inskribatutako birzatatiketa proiektuetan aurreikusita dauden edo amaituta dauden etxebizitzaren sustapen osatuei etxebizitza babestuen kalifikazioa eman ahalko zaie edo kalifikatuta dauden araubidea aldatu, lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuak salmentarako gehieneko prezioan duen oihartzuna Nafarroako Etxebizitzaren Babes Publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean aurreikusitako portzentajetik gorakoa izan arren, betiere arazoitzen bada beharrezkoa dela etxebizitza horiek babestuen kalifikazioa izatea edo kalifikazioa aldatzea, exekuzioa zuzenekoa dela ziurtatzen bada eta betetzen badira alderdi hauetaz etxebizitza babestuaren araudi berariazkoan ezartzen diren baldintzak: azalera, diseinua, bizigarritasuna, xedea, erabilera, kalitatea eta gehieneko prezioa.

15. artikulua. Babestutako etxebizitzaren erabilera aldatzea.

1. Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak baimendu ahal izanen du, sustapen beraren barruan eta sustatzaileak eskatuta, behin betiko salerosketaren araubidearen kalifikazioa

hartu duten etxebizitza babestu guztiak edo batzuk alokairuaren araubidean erabiltzea.

2. Salerosketaren araubidean kalifikatu behar diren etxebizitza babestuen sustapenetan, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak baimendu ahal izanen du, sustatzaileak eskatuta, etxebizitzetako batzuk gordetzea alokairuan emateko.

16. artikulua. Etxebizitza babestua eskuratze-ko gutxieneko baldintza batzuk betetzetik salbuestea.

Jendaurreko deialdia egin ondoren, eskatzaileen kopurua adjudikatu beharreko etxebizitza babestuen bano txikiagoa den sustapenetan, etxebizitza guztien edo batzuen adjudikazioa eman gabe gelditzen denetik hiru hilabete iraganik, sustatzaileak eskatu ahal izanen dio etxebizitzaren arloko departamentu eskudunari eskatzaileak gutxieneko diru-sarrerak frogatzeko betebeharretik salbuesteko, bai eta Nafarroako udalerrri batean erroldatuta egoteko betebeharretik ere.

17. artikulua. Etxebizitza babestuko logela eta/edo eranskinak errentan ematea.

1. Etxebizitza babestuaren jabeek, ohiko bizileku iraunkorrerako erabiltzen segitzen badute, etxebizitza horretako logelak eman ahal izanen dituzte errentan, banaka, betiere etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan errentamenduen kontratua aurkezten bada.

Logeletako bakoitza errentan emateko gehieneko prezioa ez da izanen, inolaz ere, etxebizitza osoa errentan emateko gehieneko prezioaren eta bertako logelaren kopuruaren arteko zatidura baino handiagoa.

2. Era berean, babestutako etxebizitzaren jabeek eranskinak errentan eman edo saldu ahal izanen dituzte, banaka, Nafarroako Gobernuak urtero etxebizitza mota bakoitzerako ezartzen duen prezioa gainditu gabe, eta kontratua etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan aurkeztu ondoren.

3. Bi kasuetan, errentan emateak edo saltzeak ez du ekarriko jasotako dirulaguntzak itzuli beharrik, eta ez da eskatuko errentariak etxebizitza babestua eskuratzeko gutxieneko baldintzak bete ditzan.

18. artikulua. Penalizazio klausulak, etxebizitza babestuen salerosketa-kontratuei edo jabetza adjudikatzekei uko egiteagatik.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ikus-onetsi administratiboa jasotzeko

aurkezten diren kontratuek, etxebizitza babesturen jabetza adjudikatzeak edo salerosketak, nahitaezko klausulak edukiko dituzte, erosleek horiei uko egiteko aukera arrazoitua izan dezaten; kasu horietan, gehieneko penalizazioa ezarriko da kontzeptu guztietan, 500 eurokoa lehen urtean, kontratua izenpetzen denetik hasita, eta 1.200 eurokoa bigarren urte-tik aurrera.

Ez da zehapenik ezarriko erosleak etxebizitzaren erosketa finantzatzeko hipoteka-krediturik eskuratu ez duenean.

2. Babestutako etxebizitza baten adjudikazioari erosleek uko egitearen ondorioz egin beharreko dirulaguntzen itzulketak ez du interesik sortuko.

19. artikulua. Gizartearen abala etxebizitza babesturako.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari gehienez ere 30.000.000 euro egiten duten abalak emateko, honako baldintza hauetan:

1. Abalaren esparrua. Abala eman ahalko da Nafarroako Foru Komunitatean den etxebizitza babestuen edozein mota salerosketa bidez eskuratzeko. Halaber, abalaren onuradunak izan ahalko dira babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendu-kontratu baten bidez adjudikazio-hartzaileak izateko aukera duten unitateak, haien aparteko inguruabar ekonomikoengatik aldi baterako ezinduta daudenean. Eta aparteko kasuetan, Nafarroako Gobernuak zehazten dituenak, egoera sozial berezietan erreparatuta.

2. Abalen onuradunak. Abal hau eskuratu ahalko dute babes ofizialeko etxebizitza baten adjudikazio-hartzaileak direnak, jabetza araubidean izan nahiz errentamendu kontratu baten bitartez. Horretarako, foru lege honek indarra hartzen duenetik 2011ko abenduaren 31 bitartean eskatu beharko dute hori.

3. Indarraldiaren gehieneko epea. Etxebizitza babestua salerosketa bidez eskuratzeko abalen indarraldiaren gehieneko epea izanen da aplikatzekoa den hipoteka-mailegua ematean ezartzen den bera. Babes ofizialeko etxebizitzak errentamenduan hartzeko abalen indarraldiaren gehieneko epea 5 urtekoa izanen da.

4. Eman beharreko abalen gehieneko zenbatekoa. Abalen gehieneko kopuruak ez du gaindituko jabetza araubidean hartzekoa den etxebizitza babestuaren tasazioaren % 80. Babes ofizialeko etxebizitzaren errentamenduaren kasuan, ez du gaindituko errentamenduko prezioaren hiru hilabetezko prezioa.

5. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari abalen programa hori zuzenean nahiz Vinsa sozietate publikoaren bitartez kudeatzeko.

20. artikulua. Errentamendurako sustapenetan eskatu beharreko abala.

Babes ofizialeko etxebizitzak errentan emateko kontratuetan, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izenpetzen direnetan, sustatzaileak, kasuan kasuko fidantzaren berme osagarri gisa, eskatu dezakeen bakarra bankuko abala da, sei hilabetezko errenta adinakoa gehienez ere araubide orokorreko etxebizitzaren kasuan, eta hiru hilabetezko errenta adinakoa gehienez ere araubide berezikoetan.

21. artikulua. Etxebizitzak errentan emateko sustapenetan araubidea aldatzea.

Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, prezio tasatuko etxebizitzetan eta errentan emateko prezio itunduko etxebizitzetan, behin betiko kalifikazioa azken hamar urteetan lortu baldin badute, etxebizitza guztiak edo batzuk araubide bereziari atxikitzea eskatu ahal izanen da, eta errentan emateko erabiliko dira araubide berezi horretarako ezarritako modu eta baldintzetan, errentari horiek ere beste araubide horretakentzat ezarritako dirulaguntzak jasotzeko aukera barne.

22. artikulua. Etxebizitzarako kontuaren antzinatasuna aitortzea, baremoko puntuazioaren ondorioetarako.

1. Etxebizitza babestu bat eskuratzeko, etxebizitzarako aurrezteko kontuaren titularitatearen antzinatasunak etenik ez izateko baldintza bete dela ulertuko da baldin eta eskatzaileak frogatzen badu kenkarirako eskubidea zekarren etxebizitzarako kontu baten titularitatea eduki duela, horretarako eskubidea sortzen zuen epea mugaegunera iristeagatik kontua itxita egon arren, betiere etxebizitzarako kontu berriak, kenkarirako eskubidea ematen duenak, aurrekoa itxi eta hiru hilabetezko epean ireki bada, gehienez ere.

2. Era berean, baldintza hori baldintza berberetan betetzen dela ulertuko da etxebizitzarako kontu baten titular izan eta bertan gordetako diru-kopuruak etxebizitza babestu bat erosteko erabili dituzten eskatzaileen kasuan, azkenik etxebizitza horren erosle bihurtu ez badira ere, arrazoiturik emandako ukoagatik edo haiei egotzi ezin zaizkien arrazoengatik ikus-onetsia ukatu zaielako.

23. artikulua. Etxebizitzarako kontuetan gorde-tako diru-kopuruak, ohiko etxebizitza erosteko erabili ez direnak etxebizitzaren saltzaile edo sustatzailearekiko kontratua suntsitzeagatik.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62.1.a) artikuluan ezarritako betebeharra, alegia etxebizitzarako kontuetan gordetako diru-kopuruak ohiko etxebizitza lehen aldiz erosi edo zaharberritzen erabiltzekoa, ez da betegabetzat joko baldin eta, etxebizitzaren salerosketako kontratua suntsitzen bada salbuespeneko arrazoiengatik, saltzaileak edo sustatzaileak subjektu pasiboari itzuli badizkio kontura emandako kopuruak, eta subjektu pasiboak etxebizitzarako zeukan kontuan edo, hura itxi badu, berri batean berriz sartu baditu.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak zehaztuko du zein diren salerosketaren kontratua suntsitzea eragin dezaketen salbuespenezko arrazoiak, horrek ekarri gabe betebeharra ez betetzea, eta, halaber, etxebizitzaren saltzaileak edo sustatzaileak itzultitako kopuruak etxebizitzarako kontuan berriz sartzeko baldintzak eta arrazoi eta baldintza horiek frogatzeko modua ere bai.

III. TITULUA

Hirigintza arloko neurriak

24. artikulua. Lurzoruaren eta hirigintza-plangintzaren arloko lankidetzat-hitzarmena Iruñerriko udalekin.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Iruñerriko udalekin lankidetzat hitzarmen bat negoziatu eta sinatu beharko du lurzoruaren arloko politikari eta hirigintza-plangintzari buruz; hitzarmenaren helburua izanen da Iruñerrian hurrengo zazpi urteetan izanen den etxebizitza babestuen beharrari erantzuteko behar den lurzoruaren plangintza egitea eta hura lortzea.

Era berean, Nafarroako Gobernuak ahalik eta arinena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 45. artikularekin bat, udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektorial bat tramitatuko du, zeinak eraginen baitie lurzoruaren eta hirigintza-plangintzaren arloko lankidetzat-hitzarmena sinatu ez duten udalei edo horren exekuzioa justifikaziorik gabe eta modu larrian atzeratzen duten udalei. Udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektorial horren helburua izanen da xedapen gehigarri honetako bigarren lerrokadan jasotako hirigintza planeamendua onestea Iruñerrian.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 47. artikularekin bat, Nafarroako Gobernuak interes orokorrekotzat joko du xedapen gehigarri honetan jasotako lankidetzat hitzarmenean aurreikusitako etxebizitza babestuen eraikuntza.

25. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aldaketa.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aldaketa hauek egin dira:

Bat. 56. artikulua izenburua eta 1. idatz-zatia aldatu dira, eta testu hau izanen dute:

“56. artikulua. Udal plan orokorra.

1. Udal plan orokora honako hauek osatuko dute:

a) Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredua.

b) Udalaren hirigintza plana.”

Bi. 75. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“75. artikulua. Aparteko plan berezien tramitazioa.

Udal plan orokorraren determinazioak garatzen ez dituzten plan bereziak foru lege honen 72. artikuluan ezarritako arauarekin bat tramitatuko dira.”

Hiru. 78. artikuluari 3. idatz-zatia gehitu zaio, eta testu honekin:

“3. Planeamenduaren edozein aldaketak exekuziorako behar diren determinazio egiturazailerik eta xehakatu guztiak jaso beharko ditu.”

Lau. 79. artikuluan 3. eta 4. idatz-zatiak aldatu dira, eta testu hau izanen dute:

“3. Udal plan orokorretako antolamendu xehakatuaren determinazioen aldaketa 74. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egingen da, ekinbide publiko edo pribatuari jarraikiz, deusetan ukatu gabe plan partzial eta bereziek antolamendu xehakatuaren egiten dituzten aldaketak.

4. Sektorizazio planetako, plan partzial eta berezietako eta xehetasun azterlanetako determinazioen aldaketa beren onespenerako ezarritako prozedura beraren arabera egingen da.”

Xedapen iragankorra. Zenbait laguntzaren aldi baterako indarra

1. Foru lege honen 7. artikulutik 19. artikulura bitartean (biak barne) aurreikusitako laguntzak behin-behineko kalifikaziorako eskaera foru lege

honek indarra hartu ondoren eta 2011ko abenduaren 31ra arte aurkezten duten obra eta jarduketan aplikatuko dira. Ez dute inola ere foru lege honetan xedatutakoaz baliatzerik izanen behin-behineko kalifikatutako obra edo jarduketak edo Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 191.2.d) artikuluan aurreikusitako txostena foru lege honek indarra hartu aurretik eskuratu dute-nak.

2. Foru lege honen II. tituluan aurreikusitako neurriak 2011ko abenduaren 31ra arte aplikatuko dira.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra eta ordutik aurrera izanen ditu ondorioak.

